

## ezagutzen al duzu Donostia?


### Illausingo mugarria

Errekabeltza ondoan, urumea ibai ertzean, honek Nafarroako Arano herriarekin mugatzen duelarik, Illausingo mugarria dago, Oreretako dermioarekin mugan.

Donostiako Udal dermioko mugarririk urrutienetakoa da (udaletxetik 18 kilometro errepidez). Illausin (Illarrasuain, dokumentuetan) Sarobe edo saroi («sel» espainieraz) bat zen, Altza-Basoko mendietan kokatua. Sarobe bat artzai-barruti mugatu bat zen; forma biribilekoa. Gipuzkoan eta Nafarroan aldiz, forma karratukoa Illausingo sarobearen Uru-meako Zillegien zati bat zen. Uru-meako Zillegiek («Montes Francos» espainieraz) Gipuzkoan aldeko Uru-mea haraneko mendi guztiak hartzen zituzten, Adarra eta Asketa mendietatik Igoian eta Urdaburu mendietaraino eta Hernaniko Fagollagatik Nafarroako mugaraino, hau da, Arano herriraino. Urnieta, Hernani eta Donostia

herrien artean zatituta zeuden Zillegiak. «Partida», «Exido» eta «Sel» barrutietan banatzen ziren. Illausin «Partida de Oberan» mendi barruti handiko zatia zen. 1879. urtean Altza herria Donostiarengandik banandu zen, eta «Partida de Oberan»-eko mendien erdia - Illausin barne- ondasun bezala bereganatu zuen.

JOSU TELLABIDE



Roxali

Illausingo mugarria. «A» (Altza) eta «R» (Renteria) muga.

## Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

### Madalen

1


Madalen Buzturingo  
gabean gabean  
errondean gabiltza  
zure portalean.  
Madalen Busturingo  
gabean gabean  
errondean gabiltza  
zure portalean.

Ai, Madalen, Madalen  
Ai, Madalen!  
Zure bila nenbilen  
orain baino lehen.

2

Hasi goiko kaletik  
eta bekoraino  
ez da ederragorik  
Madalentxo baino  
ai, Madalen, Madalen,  
Madalen gaisoa,  
Madalenek edaten du  
edari goxoa.

Danbolin fandango baten airean sortutako bertsoak dira. Lehendabizikoa herriarena da eta segida luzea Pepe Artolak (1864-1929) jarri zion. Hona bi bakarrik ekarri ditugu. Madalen, Kattalimekin batera, neska ederren izen simbolikoa da kasik.



Lezotik Gaintxurriketa aldera, Jaizkibelen pean, **ETXEBERRIA JATETXEA**. JOXE MARI ETA ROMUALDOREN gobernupean. Ezkontza, komunio, famili edo lagunarteko bazkaria edo afarietarako leku aproposa. Ingurune zabal, berde atsegina. Aparkaleku propio eta haurrentzako jolas leku egokia.

Joxe Marik erosten ditu bertako haragia, arrai freskoa, inguruko barazkiak... Romualdok, 21 urte daramatza sukaldari.

Berezia? Dena, baina aipatzekotan **«legatz bete Romualdo erara»**